Mattin itzali zaigu

Iragan asteazkenez, hil honen 22an, Baionatik heldu zitzaigun berri beltza. Ahetzeko Mattin itzali zela. Hau da egun bertsozale guzien dolumina.

Aspaldi zebilen makalik. Duela bizpahiru urte traktoreak azpian hartu zuenetik eri baizen, eta Baionara ebakuntza batera eramanik han bukatu ditu bere azken minak. Sufrukario horietan bere betso hura zetorren gure oroitzapenera:

Zorion dena ez daike egin
mundu huntako biziaz,
zerua ere irabazteko
daukagu penitentziaz.
Heldu zauzkigun nahi-gabeak
hartzeko pazientziaz,
otoitz dezagun Zeruko Aita
lagunt gaitzala graziaz.

Nork etzuen ezagutzen euskaldunon artean hain ohoragarria zen Mattin?

Ahetzen (Lapurdi) sortua zen 1916. urtean. Gazteriik hasi zen bertsoetan. Garai haietan, zalantzarik gabe, bertsotarako zaletasun gehiago zeogen eta gerra osteko beherakadaz, bertsolariz urriturik gelditu zen mugazandiko alderdia ere. Xubikoa, Errexil eta beste hiltzeaz Xalbador eta Mattin izan ziren plazetan agertzen ziren bakarrak. Ordurako, G. Hernandorena hasia zen txapelketak antolatzen bertsolaritza berpiztu nahirik eta laster hasi zen Euskaltzaindia bere bidetik, herriz herri txapelketak eratuz euskaldun lokartuak iratzartu nahirik. Horrela, ekintzaren ondorioz, zuzpertu zen bertsolaritza. Baina, mugazandik, Xalbador eta Mattini bereziki zor zaie berpizkunde hori, lehenagokoen eta oraingo berrien zubi egin dutelako. Zeren, orain, han ere bada loraize berri bat.

Esan bezala, Mattin oso ezaguna zen euskaldunon artean eta bere ospeagatik jaso =uen aurtengo ekainaren zazpian omenaldi merezia Oiartzunen. Hargatik esl:aini zion orrialde hauetan Xabier Lete adiskideak artikulu eder bat (1981-6-1) ahetzearrai. Duela lau urte, ekainez, bere sorterriaren omenaldia jaso zuen eta une hartan nik ere eskaini nion artikulu bat (ikus ***Bidez*** *liburuko 433-438 orrialdeetan). Mattinen emaitza hain zabala eta ugaria denez, ez dut oraingo hontan beste artikulu horietara jo beharrik. Jo beza zerbait gehiago jakin nahi duenak, horietara ez ezik baita Auspoa Liburutegiak argitaratu zion* ***Ahal dena*** *(1971) deitu liburura.*

Mattin, X. Letek ongi zion bezala, "eskola zaharreko azken bertsolarietako bat" zen agian. Bat bateko bertsoak zituen maite eta horietan ere parregarriak nahiago. "Gentea libertitzeko" nahi zituen bertsoak egin. Irtera xelebreak zituen gahienean eta maiz, bere planta, arlote itxurazkoa. Baina, itxura haren barnean gizon handi bat gordetzen zen, gizartearen naturalezaz ongi jabetua, pentsalari enpirikoa, gizontasunez jokatzen zekiena; behar bada ez hain eskolatua, baina bai jakituna.

Bada oraindik bertsolaritzatik zer ikasirik eta zorioneko gara aurtendik Udako Euskal Unibersitatean ahozko literaturaren mota berezi honeli bere lekua izango duelako.

Udaberrian Bilbon elebitasunari buruzko mahainguru batean, bertsolaritza gutietsizko galdera bat egin zidatzen publikotik, Erdi-aroan Probentzan bazirela trobadoreak eta haien errotikakoak baldin badira ia zer meritu duten gure bertsoalriak. Jatorria haiegandik datorrela uste bada ere. Hori ezta oraindik frogatu. Baina, hala ere, gure bertsolariak zortzikoaren doinuz, edo beste zenbait euskal doinuk markatzen dien neurrian kantatzeaz aparte, bere klixe edo errejistro bereziak dituzte, mendez mende landuak eta herrian memorizatuak, bertako eskola berezi batean errotuak. Telesforo Aranzadik ongi zion bezala, "Euskal Herria ezta zati harrigarri bat Europako mendebaldean". Jakin dezagun ez garela arrotz Europako kulturan, baina bai üaditugula geure bereiztuntzak, geure era jatorrak, eta horietako bat dugula bertsolaritza.

Herri baten sena zer denik ez dakiten jakitunik ere bada. Eskolatuak, baina ez hain jakitunak. Jakintsua, Mattin bera zen, ondoko bertso hauek erakusten digunez:

Bere ustian jakintsuna den
jaun bati diot ikasi:
"Euskaldun gaituk, nai badek, baina
frantzes ordea lehenbizi!
Bertze horiek zer nahi ditek?
Huna jin dituk ihesi!"
Jakin zazue arrazoi hori
ez nion aise iretsi"!

Nere aitatxi Lezon sortua
— han esaten dute jaio —
sakramenduak ere bai hartu
komunione ta bataio;
karlisten gerla = ela merio hetzera
baitzuen jo,
gerizaketa dabilenari
ondo-etorri zor zaio.
Jakintsu hori mintzo zelarik
ni ere han nintzen alaino,
orduko pena ezin iretsiz
nigarrez nago oraino;
nere arraza zabaltzen baita hetzetik
Lezoraino,
gipuzkoar bat nahigo dut
Norteko frantzes bat baino!

Gerratean hemendik ihesik joan ziren euskaldunen alde egindako bertsoak dira. Mattinen gizontasuna neurtzeko ez dira txarrak. Ordurako bere abertzaletasuna erakutsia zuen. Ondo zekin bere herria zer zen eta ez zen ahalge sentitzen zuena agertzeko. 1946an Donibane-Lohizungo suieta batean ere holako bertso hau irten zitzaion:

Oren hoik izanen tut
ezin ahantziak,
satifatuko ditut
ene gutiziak,
kantuz ohoratzeko
zazpi probintziak;
bitartean har tzatzu
nere goraintziak.

Bere bertso sailetan badira anitz hauteskundeeri edo hauteskundez eginak. Etzuen gehiegirik sinesten gizon hiztunekin, baina batez ere arrotzen mihiletik zetorrenean, 1959an egin zituenak erakusten digutenez. Bertan eskatzen zuen bake saindua ere gaur egun hartuko genuke. Bai horixe:

Bake saindu bat desiratzen du
aspaldi mundu osoak,
eta gu berriz elgarri gerlan
jendeki eta auzoak;
elgarrekilan pasa ditzagun
herrian urte gozoak,
soberakiniz sinetsi gabe
arrotzen ele faltsoak.

Horietako batzuk urterik gabe agertzen dira, zoritxarrez; zeren, historiarako kronika politak bai dira, noiz nor zelako joeraz ibili zen jakiteko.

Hauteskunde edo bozeri eskainietan ere Mattinek ongi zekien ziri umoretsua erabiltzen:

Gizon batzuen egitateaz
asko gaude harriturik:
kontseilu hortan sartuak ziren
populuak hautaturik;
orai kanpora atera dire
lagun onez nardaturik,
lixta berria ere muntatu
aintzinekua ukaturik,
arrotz bat buru harturik.

Bizkorra genuen Mattin bat bateko bertsoetan. Zerbait jasoa bada ere, gehien gehienak, milakak, Euskal Herrian plazarik plaza kantatuak, haizea betiko eramanak dira. Hala ere, idatzirik eta grabaturik gelditu zaizkigunak, aski dira bere izena gure oroitapenean betiko gorde ahal izateko.

Berakin ibiliak diren bertsolarien oinazea handia izanen da egun hauetan.

Zalantzarik gabe, Mattinek ber berak Errexilen heriotzaz izan zuen mina izango dute. Bere bertsoak ez bai ziren irri egiteko bakarrik, baizik samintasunak agertzeko ere bai, bihotzean min denean: "Zuk badakuzu guk lagun gisa,/ zenbat zintugun, bai, maite,/ ta elgarrekin kantatu dugu, ongi zinena,/ apartatu zira fite,/ ez adiorik, lagun maitea,/ ta beraz ikusi arte "

Lazkao-txikik behin, bertso batean, Mattin gizon bezala aingeru bat zela zion. Hala delarik, Antxon Aranburuk Usurbilgo plazan Mattin bera San Pedrori ate joka ipini zuenean kantatu zuenetako bat gogoratuz,

bertsu kantatuz ta otoitz ihez
munduan nintzen ibilki,
eta orain zeruko atia.

Ezagut dezagun Araba

Zenbait arrazoik bultzatu ninduen zutabe hauetan Arabari buruzko gai kulturalak erabiltzera. Haletako bat Araba euskaldunon artean ezagutaraztea izan zen. Euskal Herria, orohar, ***ezezaguna*** *baldin bazaigu euskaldun gehienoi, oraindik gehiago esan daiteke Arabari bagagozkio. Ez du sekulan probintzia honek erakarpen haundirik izan arabar ez diren gainontzeko euskaldunentzat. Joera nabariagoa izan ohi da beste herrialdeetara abiatzeko Arabara baino. Honetan ez bide baitzuen bidaiariak besteen indar erakarlerik aurkitzen.*

Gipuzkoatik gehien batez Nafarroa eta Ipar aldeko herrialdeak izan dira jomuga. Bizkaitarrek, berriz, Santandereko ondartzak eta Errioxako lurraldeak izan dituzte gogokoenak. Gaurregun, bestalde, oporraldietako gure irteerak luzeagoak izaten dira, Espainia eta mundo osoko estatu guztietaraino iristen garelarik.

Gorkaren ***"zu ote zare aitaren zazpigarren alaba"*** *estrofa ospetsuak askotan, tamalez, hala dela baieztatzen digu, gertatzen ari denari begira. Eta behin baino gehiagotan baztertua izan den probintziak hortxe darrai, erdi umezurtz, beste euskaldunen hats beroa noiz iritsiko zaion zai dagoelarik. Araban jaio arren probintziatik kanpo bizi garenok ba dakigu jakin ondo gainera! zernolako txisterik sufritu behar izan dugun gure sortherrialdea dela eta. Bigarren mailako euskalduntzat hartu zaigula uste behar izan dut sarri. Kontrako erreakzio bezala probintziako arabarrengan jarrera erasotzaile bat sortu zen,* ***"para frenar a los farrucos vascos".***

Baina aurrera jarraitu aurretik, zera utzi nahi nuke garbi: jokaera hauek ez dira —zorionez— arau; hots, ***arabar guztiok*** *euskaldun garela (hizkuntzari dagokionez, euskaldun izateko eskubide osoa dugu) pentsatzen duenik ba da. Bestalde, Lakuara iritsitako bizkaitar eta gipuzkoarren artean jende onik ba dela uste duen hainbat arabar ezagutzen dut.*

Eusko Jaurlaritzak azaldu dituen asmoen arteko bat euskaldunok gure Herria hoberik ezagut dezagula dugu. Eta baieztapen hau ez da, ez jaunak, inongo pellokerlarik. Elkar ezagutzeak erakutsi ohi die gizonei aurrerapenerako bidea, ezaguerak fidantza baitakar eta hauxe da —hain zuzen ere— edozein enpresarako abiapuntua.

Besteena urrezko, gurea urre-gorrizko. Hauxe da euskaldunoi askotan gertatzen ziaguna eta gure Herriko erakargarriak ezagutu eta dastatu beharrean atzerrikoak nahiago izaten ditugu, gure lotsarako.

Arabak ba du sekulako posibilitaterik turismoari ateak zabaldu ahal izateko. Probintzian bizi direnak ez ezik baita gainerako euskaldunak ere Arabak eskaintzen dituen aukeretaz baliatu beharko ginateke gure kultura hedatzeko, azken finean gauza berririk ezagutzeak kultura adieraz baitezake. Norbaitek zabalkunde egiten ari naizela pentsatuko du. Baietz esango nieke, baina merezi duela uste dudalako egiten dut. Eta irakurleak, datezen oporretan zer egingo duen orain-dik erabakitzekoa baldin badu, saialdi bat egin ahal izango luke, arrazoirik dudan ala ez jakiteko. Ez dut uste huts emango lukeenik.

Dena dela, aholku bat eman nioke irakurleari. Edozer gauza ezagutu ahal izateko ***erabili*** *egin behar dugu. Zenbat eta zenbat bider igaro gara ketxez ikusgarri iruditu zaigun toki batetik, behin ere ez geratubarik?. Zenbat izango dira Etxegarate utzi ondoren Pankorbora iritsi arte kotxea gelditu ez duten gizpukoarrak? Hauetako askok Araba oso ondo ezagutzen duela esango liguke, probintzian zehar hamaika ostera egina biatauka. Baina ez da honela. Edozer herri ezagutu ahal izateko herria bizi behar da, eta hau ez da loritzen benetako ukitzerik gabe.*

Ez dakit nondik hasten probintziako erakarpenik garrantzitsuenak aipatzean. Egitekotan, ikustari gehien hartzen dutenak ***Arabako Errioxa*** *eta Legutiano eta Ullibarri Ganboako urtegiak ei ditugula esango nuke. Lehenengoan bidaiariak klima osasuntsuaz gainera ba du ardo en bat dastetzeko aukera. Urtegietan, berriz, ur-kirol eta arrainketan aritu ahal izateko tokirik aproposenak aurkituko ditu. Baina Arabako herririk gehienen balore turistikoa oraindik barik dugula aitor daiteke. Lautadako herrixka hoiek:* ***Agurain, Zalduendo, Dulantzi...;*** *Kantauri sakanako* ***Arrastaria, Okondo...;*** *mendialdeko* ***Pipaon, Lagran...;*** ***Añana-Gesaltza, Erribera Beitia...*** *haranak; Gorbearen mendinguruko* ***Zuia, Zigoitia...;*** *edota Deba Garaian koka daitekeen* ***Aramioko ibar paregabea...***

Aktas bat aurkituko du bidaiariak: turismo helduak esijitzen duen azpiegiturarik eza. Honek zenbait buruhauste ekar diezaioke ikustariari, batez ere ostatu bila diharduenean. Dena dela, eragozpen hau errez gaindi daiteke bidaiariak denda-kapaia badarama. Izadiak eskaintako ukitzeak hotelaren abantailak ahazteraziko dizkio.

Azkenerako utzi dut ***Gasteiz,*** *probintziako hiriburuan beste era batetara gertu baitaiteke bidaiaria. Abuztuaren 4.an hasten diren jaietara bilizen da kanpotik etorritakoen kopururik haundiena. Baina horrezaz gainera ba du Gasteizek zer eskaintzen: museorik, kirol instalapen ederrak, hiri-alderdi interesagarria... eta probintzian aurkitzen ez diren ostatu-zerbitzuak.*

Beharbada, ikustari zorrotzak Arabak eskainitakoa ez dela beste munduko zerik esango du. Ez noa eztaibaidetan hastera, dena erlatiboa baitu. Baina utziko balit hauxe esango nioke: ez dugula gure burua hutsaren truk saldu behar. Etxean zer daukan dakienak bakarrik jakingo du neurtzen falta zaiona. Bitartean konparaketa guztiak alperrikakoak ditu.

José Mari

VELEZ DE MENDIZABAL

Somos en ocasiones tan poco consecuentes con nosotros mismos que anteponemos las imitaciones foráneas al original propio. Y esto viene a cuento de todos esos que aprovechando sus vacaciones o temporadas de ocio se dedican a conocer regiones y países extranjeros, sin habérseles ocurrido nunca visitar lo que nos ofrece el nuestro. Será